

IRAIZZ SANTA KRUZ ETA EUNATE RUIZ DE GALARRETA

“Gazteok organizatu egin behar dugu gauzak antolatzeke, herri giroa pizteko”

Enkuesten ondorioa: Herriko gazteen artean egin dute enkuesta bat eta herriko giroari buruz ondorioak atera dituzte.

Gazte Eragileak: Herriko talde desberdinetako gazteek darimakite aurrera egitasmoa eta zabaldu egin nahi dute.

Asanblada irekia bihar: Bihar, eguerdiko 12:00etan egingo dute asanblada, Gudarien plazan eta gazte guztientzat irekia da.

HERRIKO taldeetako zenbait gazte elkartu eta hausnarketa bat egin dute, egoera aztertu eta ondorio batzuk atera dituzte. Ondorio nagusiek diote herrian ez dagoela koadrila arteko harremanik eta monotonian batean dagoela herria. Honi aurre egiteko elkartu eta Gazte Asanblada antolatzeara proposatu dute eta bihar egingo dute lehenengo asanblea irekia, 12:00etan Gudarien Plazan.

■ Nola sortu da kezka hau herriko gazteetan?

Hasiera batean talde desberdinetako zenbait gazte elkartu eta egoera aztertzen hasita konturatu ginen herrian gure arteko giroa ez dagoela eta zerbait egin behar genuela iruditu zitzaigun. Enkuesta bat zabaldu genuen herriko gazteen artean eta gure kezka indartuta atera zen erantzunekin.

■ Eta zeintzuk dira ondorio nagusiak?

Monotonian batean dagoela herria eta denbora librean aukera gutxi dugula gazteok.



Iraitz Santa Kruz eta Eunate Ruiz de Galarreta, egitasmoaren bultzatzaileetako bi.

Asteburutan parrandarako herria bihurtu da Hernani eta astez ere lana bukatu eta tabernara jotzen du jendeak,

ez dago besterik. Gure denbora libre guztia kontsumitzean dago oinarritua. Horrez gain, gauzak antolatzeke ia

harremanik ez dago koadrilen artean eta bakoitzak bere arazoei egiten die aurre, denok arazo berdintsuak edukita. Beste ondorio bat da gazteen hitza ez dela errespetatzen eta herrian gazteen ahotsa falta dela. Hala ere, ondorio hauei buruz bihar eztabaidatuko dugu eta baliteke gehiago ere ateratzea.

■ Honi aurre egiteko gazteok organizatzea da proposatzen duzuen.

Bai, baina, proposamenak biharko bileratik ateratzea nahi dugu. 18-24 urte arteko gazteak ari gara hau antolatzen, baina, nahi genuke hau zabaldu eta bere burua bertan ikusten duen guztiari egiten diogu dei batzarrera azaltzeko. Ahalegina egin dugu ahalik eta jende gehienari abisatzen ahoz aho, kartelak jarrita, herriko komunikabidetan. Uste dugu jende dezente bilduko garela.

Zabal esanda, lortu nahi dena da gazteok organizatzea, gure arazo eta beharrei aurre egiteko. Poliki-poliki joango da hau zehaztu eta forma hartzen. □

Euskerazko produktuen katalogoa kalean da

EUSKERAZKO produktuen katalogoak euskereaz diren disko, liburu, jostailu, filma eta abar biltzen ditu eta 16 urte arteko haur eta gazteentzat da egokia. Udaleko Euskera Zerbitzuak kaleratu du katalogoa eta ikastetxe bidez egin da banaketa. Hernanitik kanpora ikasten dutenek liburutegian, kultur etxean edo herriko liburu dendetan eskuratu lezakete katalogoa. □

AMHER elkarteak bilera

AMHER elkarte multikulturalak bilera du gaur, arratsaldeko 19:30etan Biterin. Bilera irekiak dira interesa duen guztiarentzat. □

Txistulari Bandak kontzertua du bihar

GABONETAKO txistu kontzertua dago bihar Milagrosan, arratsaldeko 19:30etan. Txistulari Bandak emango du kontzertua Patxi Apezteak zuzenduta eta 11 obra joko dituzte. Txistulariekin batean silofoia, pianoa eta akordeoia ere joko dituzte biharko kontzertuan. Bukieran turroia eta cava eskainiko zaizkie entzuleei, azken urteetako ohitura den bezala. □

Santo Tomas igandean Sorgintxulon

DATORREN igandean ospatuko dute Santo Tomas eguna Sorgintxulon eta txistorra eta edaria izango da aukeran auzotarrentzat eta inguratzen den guztiarentzat. Eguerdiko 12:00etan hasi eta 14:00-14:30ak ingurura arte izango dira bertan, Sorgintxuloko auzo elkarte lokal parean. □

Pintxo lehiaketa AEKn

PINTXO lehiaketa izango da gaur AEKn, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Gelak girotu egingo dituzte eta ikasle eta irakasle moztarrotu egingo dira. □

Gure Etxola elkarteak Gabonetako sukaldaritza ikastaroa dago gaur

GURE Etxolan gaur izango du jarraipena Gabonetako sukaldaritza ikastaroak. Irakasle Iñaki Ubiria sukaldaria izango da eta arratsaldeko 17:00etatik aurrera arituko da klasea ematen.

Bestetik, Gabonetako loteria hartzeko azkeneko eguna da izango da gaur, ikastaroan zehar. □

Santo Tomas festa izango da igandean Orkolagan

ORKOLAGAN igandean Santo Tomas festa antolatu dute eta goizeko 11:00etatik aurrera sagardoa, gaztain erreak eta txistorra izango dira aukeran. Txerria ere jarriko dute plazan. Arratsaldeko 18:00etan, kontzertuak izango dira: Kalekumeak, Tuburbio eta Oztopo taldeen eskutik. □

Allianz 
ASEGURUAK
Agustin Ezponda
AGENTZIA
Telf.: 943 557 326
656 735 109

PROKOLOR ZENTRUA
MARGOAK
Landaribar, s.l.
► Industri eta dekoraziorako pinturak
► Lurrak jartzen ditugu
► Pintatutako paperak
Kardaberaz 45 - Telf.: 943 55 21 31 - Hernani

ZIMAK 
ILEAPAINDEGIA
Iturregi, 2 - 1ºB
Hernani
Tel.: 943 556556

2005 Egutegia salgai
2 euro
Kronika, Dobera, Sebas, Iruretagoiena, Leokadisti, Plaza Berri, Zinko-enea, Konde, Dorronsoro, Bikain, eta Antziola okindegian.



Jasna Pavletich eta Txari Manjarres beren lanekin.

Jasna Pavletich eta Txari Manjarresen oleo eta grabatuak Biterin, abenduaren 22ra arte

■ Bi lagun hauen 28 lan daude erakusketan jarriak.

ERAKUSKETA jarri dute Biterin Jasna Pavletich eta Txari Manjarresek eta beren oleo eta grabatuak daude ikusgai. Erakusketa hilaren 22ra arte dago ikusteko aukera, asteleheneetik ostiralera, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Bi lagun hauek 13 urte daramazkete elkarrekin lan egiten eta Biterin beren 28 lan ikusteko aukera dago. Elkarlanean urte askoan aritu arren, biek oso

estilo desberdina dute marrazteko eta hori nabarmen da Biteriko lanetan.

Espresatzeko tresna

Marrazkilaritza erdi afizio erdi ofizioa dute biek, hemendik bizitzea erraza ez dela onartzen badute ere. Momentu bakoitzean sentitzen dena espresatzeko era egokia da marraztea bi artista hauentzat, eta egunero dedikatzen diote beren denbo-

raren zati bat. Izan ere hori omen da eskolarik onena, eginaz ikastea.

Alor gehiagotan

Jasna eta Txari ez dira marraztera bakarrik dedikatzen, azkenaldian gehiena hori egiten badute ere. Muebleak restauratzen ibiliak dira, Lasarten ikastaroak emanak dituzte eta gaur egun bitxigintza ikastaro bat ari dira egiten. □

'Adur, adur, ez naiz hire beldur' ipui kontaketa gaur liburutegian

IPUIN kontaketa saio berezia izango da gaur 8 eta 12 urte bitarteko haurrentzat. Ipuin kontalaria Rai Bueno izango da eta beldurra gaia hartuta osatuko du ipuin saio berezia, izan ere sorpresa ugari izango dira saioan zehar. *Adur, adur ez naiz hire beldur* saioaren izena eta Juan Kruz Igerabidek idatzitako *Jonas eta Hozkailu Beldurtia* liburuan dago oinarrituta. Liburu honetako protagonista, Jonas, etxean bakarrik geratzen da eta sentitzen dituen beldurrak agertzen dira. Ipuin saioa gaur arratsaldeko 17:30etan da. □

Amets Arzallus, Jokin Uranga eta Unai Gaztelumendi gaur Bertsolatako lehen saioan

UMEEN saioak emango dio hasiera gaur bederatzigarren Bertsolatari, arratsaldeko 14:30etatik aurrera, Sandiusterrin. Amets Arzallus, Jokin Uranga eta Unai Gaztelumendi bertsolariak ariko dira kantuan, zaborra, reziklajea eta eguneroko bizitzako kontuen inguruan. Gaur, Hernaniko ikastetxeetako gazteak izango dira entzuleak Sandiusterrin.

Bestalde, datorren igandean izango da aurtengo bertso jaialdia, Sandiusterrin. Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Unai Iturriaga, Estitxu Eizagirre, Joxe Agirre eta Iker Osa ariko dira kantari. Datorren ekitaldi ugari izango dira baita ere. □

ESKOLA KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

Futbola	Taldeak	Non	Noiz	Saskibaloia	Taldeak	Non	Noiz
Benjaminak 4	Langile B-Urumea C	Karabel	Bihar 09:30	Alebin mutilak	Urumea A-Urumea B	Kiroldegia	Bihar 09:15
Benjaminak 4	Elizatzko C-Langile C	Karabel	Bihar 10:20	Alebin mutilak	Langile A-Langile B	Kiroldegia	Bihar 09:15
Benjaminak 4	Elizatzko A-Urumea D	Karabel	Bihar 11:10	Infantil mutilak	Langile-Amara	Kiroldegia	Bihar 10:30
Benjaminak 4	Langile A-Elizatzko B	Karabel	Bihar 12:00	Infantil neskek	Elizatzko-Amara B	Kiroldegia	Bihar 11:45
Infantil neskek	Langile-Txingudi	Zubieta	Bihar 09:00	Infantil neskek	Langile-Amara A	Kiroldegia	Bihar 11:45
Infantil mutilak	Inmaculada-Leizaran	Zubieta	Bihar 10:00	Alebin neskek	Orixe-Langile	Donostia	Bihar 11:00
Infantil mutilak	Urumea-Lasarte	Zubieta	Bihar 10:00	Boleibola			
Infantil neskek	Lezo A-Urumea	Lezo	Bihar 09:00	Alebin neskek	Urumea-LSB 2	Andoain	Bihar 12:00
Errugbia				Infantil neskek	Santa Teresa-Langile	Donostia	Bihar 11:00
Benjaminak 3	Langile A-Urumea B	Kiroldegia	Bihar 09:15	Esku pilota			
Benjaminak 3	Urumea A-Elizatzko B	Kiroldegia	Bihar 10:00	Alebin mutilak	Langile C-Elizatzko	Kiroldegia	Bihar 15:00
Benjaminak 3	Langile B-Langile C	Kiroldegia	Bihar 10:45	Alebin mutilak	Urumea-Langile A	Kiroldegia	Bihar 15:10

■ HITZ BITAN

✓ ZINEA BITERIN

Bi pelikula asteburuan Biterin. Asteburu honetan helduentzako *El Diario de Noa* pelikula botako dute Biterin. Gaur gaueko 22:30etan; bihar arratsaldeko 19:30etan eta gaueko 22:30etan; eta igandean arratsaldeko 19:30etan. Bestetik, haurrentzat *Doraimon Gladiadorea* botako dute, euskeraz, bihar eta etzi arratsaldeko 17:00etan.

✓ OSIÑAGA

Kuota kobratzea. Osiñaga auzo elkarteak jakinarazi du igande honetan pasako direla etxez etxe kuota kobratzera. Kuota 10 eurokoko da eta loteriako partizipazioa, euro batekoa, emango dute. Kuota ordaintzen dutenen artean Gabonetako saski bat ere zozketatuko dute.

Bestalde, auzoko mus txapelketa igandean jokatuko da, arratsaldeko 16:00etan, Elorrabi sagardotegian. □

📝 JASOTA BEZALA

BERRIAKen puntualizazioa Pepi Arrozpidek bidalitako nota dela eta, abenduaren 15-eko San Joan Konpartsarena, Berriak Merkataria, Zerbitzu eta Hostalari Elkarteak zehaztu nahi du:

- 1.- Bere aurrekontuan aipatzen duen karpia utzitakoa dela eta ez alkilatutakoa.
- 2.-Karpa hori erabiltzek 150 euroko gastua du, karparen mantenimenduari zer ikusia duten gastuak kubritzeko: zu-

loak eta pitzadurak konpondu, galdutako gauzak berriro ere jarri, eta abar. Kopuru hau kobratzen zaio Hernanin irabazi asmorik gabeko aktibitateak antolatzen dituen edozein talderi.

3.-Irabazi asmoekin antolatzen diren aktibitateetan, taldeei 540 euro kobratzen zaizkie.

Mari Cruz Muguruza,
Berriak elkartearen izenean.
(Erredakzioan itzulia)

IRAGARKI MERKEAK

Terreno rurala saldu nahi badezu, deitu: **689 04 07 11**

Alokatzeko 2 pisuren bila nabil. Pisu bat garajerik gabea eta beste pisua garajarekin. Deitu telefono honetara: **618 280745**

Itziño Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)**

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶Taxiak: 943 550093
- ▶Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶DYA: 943 464622
- ▶Autobusak: 943 556662
- ▶Anbulatorioa: 943 006666
- ▶Jokalaria anonimoak: 943 331103
- ▶Alkoholiko anonimo: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶Egunez: Bulnes
Florida auzoa
☎ 943 557738
- ▶Gauetz: Gil
Lasarte. Nagusia 24
☎ 943 361529

Hernani Institutua

A. Iturriaga - K. Labaka



Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Asegurantzak sailak subentzionatua

TXIRBIL HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA

Norentzat: *Langabetuentzat (gizon eta emakumeentzat)*
Katalogo Modularreko Kredituak

Makina osagarriekin egindako mekanizazio-lanak	40 ordu
Planoen interpretazioa	80 ordu
Fabrikazio-prozesuak	60 ordu
CNC fresatzeko makinaren programazioa	46 ordu
Automatismo pneumatikoak eta elektroneumatikoak	40 ordu
CNC Tornua	40 ordu
Oinarritzko metrologia	30 ordu
Tornu konbentzionaleko mekanizazioa	80 ordu
Krokizazioa	40 ordu

DOHAINIK

Hasiera: **urtarrilaren 10a**

Plazak: **10**

Ordutegia: **Asteleheneetik ostegunera 15:30tik 20:30etara eta ostiral batzuk (hilean behin)**

Matrikula irekita eta informazioa: **Enplegurako Euskal Orientazio Zerbitzua.** Gure zonakoa Zubietan dago. Telf: **943 36 31 72.**

Informazio gehiago: **Hernani Institutuan, K.Labaka eraikuntzan**
Telf. **94355 1958.** Jesus Ezquerro edo Joxean Lopez-etaz galdetu.